

FUNTSEZKO ELKARTEAK

- **Zein dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektuak funtziona dezan?**



Webguneak izugarriko garrantzia dauka, eta handik erosteko ahalmena ere bai. Gure bazkideak web-orriak sortzeko gaitasuna daukate, eta horregatik gurea, oso erraza eta eroso da erabiltzeko.

Quartz markarekin lan egin dugu erlojuaren diseinua garatzeko, eta hainbat adituekin hitz egin eta gero, diseinu mota egokienak aukeratu dugu. Teknologia alorrean lan egiteko, hainbat informatiko eta enpresekin elkarrizketak izan genituen, eta azkenean gure ustez hoberenak aukeratu genituen, horregatik Satch punta puntako proiektu inobatzailea da.

- **Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?**



Gure erlojuaren arrakasta ezinbestekoa da, eta gure bezeroei hoberena eman nahi diegu, horregatik beharrezkoa zen gure bazkideak fidagarriak eta adituak izatea. Gure bezeroak oso garrantzitsuak dira eta gure produktuen kalitatea ona izatea ehuneko ehunetan lortu nahi dugu.

Bazkideekin dugun harreman ona, gure bezeroekin izan nahi dugun harremanaren antzekoa izatea nahi dugu. Gardentasuna gure behar bat da, eta bazkideei hori adierazi nahi diegu.